



BARREN

TOKIKOM



**Eskolarako itzulera ere,  
faseka**

## AURREMATRIKULA Ekainaren 1etik 19ra



**ERDI  
MAILA**

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA  
MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA  
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA  
MENPEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN  
PERTSONEI ARRETA  
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA  
ERIZAINZAREN LAGUNTZA  
KARROZERIA

**GOI  
MAILA**

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK  
AUTOMOZIOA  
HAUR-HEZKUNTZA  
METAL ERAIKUNTZAK  
GIZARTERATZEA

Albizuri Eraikuntza  
Albizuri Pol. 24  
20.870 Elgoibar  
(Gipuzkoa)

Tel. 943 748 019

bulegoa@mek-elgoibar.eus

Ezenarro Eraikuntza  
Arreglorre Kalea. 2  
20.870 Elgoibar  
(Gipuzkoa)



www.meka-elgoibar.eus

## BOSCH WAN24260ES ARROPA GARBIGAILUA



**379 €**

- A+++ • 7kg-ko karga • Eco silence motorra
- Ur-kontsumoa egokitzeko karga detektatzen du
- VarioPerfect: garbitze-erretza perfektuak hauta ditzakezu %65 azkarrago edo %50 ur eta energia aurreztuz.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**TXARRIDUNA**

**JATETXEA**

Ermuaranbide, 1



**ORDUTEGI BERRIA!**

Orain 06:30ean irekitzen dugu.  
Zaloz eta gozatu gure gosariez!

- ◆ Eramateko razioak
- ◆ Karta
- ◆ Eguneko menua
- ◆ Menu berezia
- ◆ Ogitartekoak
- ◆ Plater konbinatuak
- ◆ Entsaladak
- ◆ Taldeen erreserbak
- ◆ Bankete-erreserbak
- ◆ Jaunartzeak
- ◆ Bataioak
- ◆ Luntxa
- ◆ Atsedenaldirako kafeak

**Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe**

**943 740 490**



NOEL ISASI, Aita Agirre Kultur Kafea

*“Kultur kafea da gurea, eta hemen ezinbestekoa da euskara”*

◆ Zer moduz zaudete Aita Agirre kultur kafean?

Orain hobeto. Barruko aldea ere zabaldu dugu, eta gure lokala nahiko handia denez, ematen du aukera mahaiak distantziara jartzeko. Jendea badabil tabernan, baina desinformazio handia dago

eta asko kezkatuta etortzen dira. Guk babes neurri guztiak hartu ditugu, eta bezeroek ere distantziak mantentzen dituzte. Hala ere, lehengo txikiteo girorik ez dago inondik inora, eta ez dakit noiz berreskuratuko dugun berriro.

◆ Euskaraldiari tartea eskaintzeko moduan zaudete?

Bai, bai. Alarma egoera baino lehen Udal Euskaltegiko Idoiarekin [Azpilikueta] egon nintzen Euskaraldiari buruz hitz egiten, eta esan nion gu parte hartzeko prest egongo ginela, baina bat-batean hau guztia etorri zen eta dena bertan behera geratu zen.

◆ Zein garrantzi ematen diozu zuk euskarari?

Handia. Ostalaritzan hasi aurretik ingeniari-tza enpresa baten lan egiten nuen, eta orain dela 15 bat urte hasi ginen enpresa hartan euskara indartzeko ahalegina egiten. Kartelak euskaraz jarri genituen, telefonoa erantzuterakoan lehen hitzak euskaraz egiteko konpromisoa hartu genuen, eta gure artean ere euskaraz gehiago egiten hasi ginen.

◆ Euskaraldia bezalako ekimenak garrantzitsuak iruditzen zaizkizu?

Bai. Euskara nire ama hizkuntza da, eta beti egon naiz horrelako ekimenetan parte hartzeko prest, eta orain, are gehiago. Kultur kafea da gurea, eta ezinbestekoa da euskara. Aita Agirre kultur gunean gaude, Elgoibarren kultura sustatzeko sortu den proiektuaren parte gara, eta hemen euskarak lehentasuna izan behar du. Bost langile gara, eta sukaldaria izan ezik, denok gara euskaldunak. Ostalaritzan kanpoko jende asko dabil, baina ni saiatu nintzen langileak hartzerakoan euskaldunak hartzen. Zerbitzari bat Ekuadorrekoa da, baina Plaentxin bizi da eta primeran egiten du euskaraz.

MANU REY, King Kong taberna

*“Bizi garen lekuko hizkuntza indartzea oso garrantzitsua da”*

◆ Nola eragin dizue koronabirusak King-Kong tabernan?

Osasunez ondo gaude, eta orain, poliki-poliki, hasi gara berriz martxan. Jendea oraindik pixkat beldurrez dabil, eta ez dago mugimendu handirik. Eguraldi hobearrekin

jende gehiago etortzen da, baina lehenengo astean oso gutxi. Bigarren fasean barruko aldea ere ireki dugu, baina bakarrik mahaietan eserita egon daiteke jendea. Orain lan gehiago daukagu, arauak betetzeko dena sarri-sarri garbitu behar dugulako.

◆ Euskaraldia Taldekoekin egoteko moduan zaudete?

Bai. Ez dut edukitzen denbora soberan, lan askorekin ibiltzen gara tabernan, baina aterako dut tarteren bat Euskaraldiari buruzko informazioa jasotzeko.

◆ King-Kong tabernak hartuko du parte Euskaraldiaren bigarren edizioan?

Bai, ahal duguna egiteko prest gaude. Gure tabernan badago euskaraz egiteko aukera. Nire ilobak eta Imanol Albizuk dena ulertzen dute eta euskaraz egiten dute, eta nik ere ulertzen dut eta saiatzen naiz hitz egiten. Beste bi langilek ez dakite euskaraz. Bata, kubatarra da, eta bestea, Venezuelakoa, eta denbora gutxi daramate hemen. Baina hitz batzuk euskaraz egiteko kapaz badira.

◆ Euskaraldiko hamaikakoan izan zinen lehen edizioan, *Belarriprest* moduan. Euskaraldia moduko ekimenak garrantzitsuak direla uste duzu?

Bai, oso garrantzitsuak. Bertako hizkuntza mantentzea oso garrantzitsua da toki guztietan, Galizian, Euskal Herrian, Katalunian... Nik egin dut euskara ikasteko ahalegina, eta oso pozik nago. Bizi garen lekuko hizkuntza indartzea oso garrantzitsua da nire ustez. Oraindik hitz egitea kostatzen zait, baina ulertu egiten dut.



facebook.com/euskaraldiaelgoibar



twitter.com/EuskaraldiaElg2



instagram.com/euskaraldiaelgoibar



T.me/euskaraldiaelgoibar



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

## Bestelako mundua

utzitako tartetik eskutxo biak lehenago, eta burua gero atera ostean, astoaren gainean bakerozko pelikuletan moduan etorritako Manuela ikustea lortu nuen.

- Zer moduz? –esan zidan ekarritako esnea bezala gozo-gozo.

Sarritan ikusten banuen ere, esku lodien zainek atentzioa ematen zidaten. Antza denez, globoen antza hartutako errapeei tira egiteagatik zituen horren nabarmen. Esne-marmitatik antosinera inolako eragozpenik gabe salto egindako baserriko esnari kontu egiten ziola, Manuelak esan zidan *Beltzak* kumeak izan zituela.

- Bai!! –nik.

- Ezetz asmatu zenbat?

- Bi –esan nion, gu etxean bi anai-arreba ginelako.

- Motz gelditu zara. Sei izan ditu. Baten bat nahi baduzue...

Amaren mantalaren ertzari tira egin nion burua makurrarazteko, eta nire gogorari erantzuna emateko, baina nahia airean gelditu zen.

- Beno, zuek etxean zaudete, baina nik oraindik baserrira joateko...

Eta orduan nire pentsamenduek baserriraino jarraitu zitoten noraezean.

- Ama, Manuela, non bizi da?

- Etorri! Gaur ez dakit ikusiko dugun.

Eta Errosario kaleko errekerara ematen zuen balkoira eraman ninduten amaren pausoek.

- Morkaiko ikusten duzu?

Hantxe zegoen piramide itxurako mendia lepoko behe-lainoa jantzita.

- Eta mendi puntan, gurutze bat ez duzu ikusten? Bada, gurutze horren azpian Oatxiki dago, Manuelaren baserria. Itxaroten bazaude argi-izpiek hodeien soinokoa zulatuko dute eta...

Orduan bezala, gaur ere, ikusi ditut gure herrian horrenbesteko arrastoa utzitako baserritarrak eta baserriak ahaztuta, eta zera pentsatu dut: egoera honek ez digu lagunduko bestelako mundua irudikatzen, gurea areago maitatzen eta zaintzen? Ala lehengoetara bueltatuko gara, ezer gutxi ikasita?

Egunero bezala aldabaren *kax-kax-ax!* ozenek egurraren sitsa esnarazi zuten.

- Ama, atea!

Zabaldutako txorota itxi, gerrian eskegitako eskuzatarrean eskuak sikatu, eskutik baino zerutik gertuago zegoen armairura besoa luzatu, elkarri bultzaka bizi izatera ohitutako lapikoen artean esnearen usaina baino ezagutzen ez zuena hartu, eta beti bezala ama nora nik hara zuzendu nituen pausoak korridore amaigabearen zola zapaltzean egurrak sortutako kriska-kraska lagun.

- Egun on! –amak.

- Non dago gure etxeko nagusia? – Manuelak.

Amaren aldakak eta atearren markoak



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ ELKARRETARATZERAKO DEIA

Azken hilabeteetan izandako pandemiak erabat baldintzatu du gure bizitza. Espetxeetako egoerak ere okerrera egin du zeharo; ospitaletan edota egoitzetan osasun materiala falta izan baldin bada, zer ez ote den gertatu ehundaka pertsona pilatuta egon diren espetxeetan, non higijene faltak nabariak diren, beste eritasun batzuen hedapena erraza den edota osasun zerbitzuak behar baino eskasagoak diren. Egoera hau euskal preso politikoei propio aplikatzen zaien salbuespenezko espetxe politikari gehitu behar diogu: 1. graduaren aplikazioa, bakartzeak, urruntzeak, espetxe administrazioaren ohiko jarrera bortitza... Edozein unetan leher daiteke tentsioa, eta Patxi Ruiz preso iruindarraren egoera horren emaitza da. Ez da bakarria: Julen Atxurra preso lekeitiarrak buruko isuria izan du Puertoko espetxean.

Azken asteotan dinamika politikarako garai zailak izanagatik, hainbat ekimen ikusi ditugu egoerari erantzunez: gehiengo sindikalak egindako eskaria euskal presoak etxeratzearen alde, nazioarteko ehun pertsona ezagunek Espainiako eta Frantziako estatuei egin dieten deia egoera zaurgarrian dauden euskal presoak askatzeko, indar politiko ezberdinek Espainiako Kongresuan presoen eskubideak errespetatuak izan daitezzen egindako eskaera (Unidas Podemos, ERC, Junts, EAJ-PNV, Mas Pais, CUP, BNG, Compromis, EHBildu), Nafarroan egindako ekimenak Salhaketak, Etxerat eta Altsatsuko gurasoekin batera...

Orain, guri, jendarteari, dagokigun gure jarrera azaltzea. Horregatik dei egiten dizuegu gaur, hilak 29, hileko azken ostirala, 20:00etan Kalegoen plazan egingo dugun konzentrazioan parte hartzera. Patxi, Julen, Sebas Etxa-

niz elgoibartarra (76 urte dituen) eta beste preso politiko guztiak bizirik eta etxean nahi ditugu.

COVID19 dela-eta emandako aholkuak jarraituz, bakoitzak bere musuko edo maskara ekartzea eta bi metroko distantzia mantentzea eskatzen dugu.

**Sare Elgoibar**

### ▶ LOTSAGARRIA ETA JASANEZINA

Udalak herriko komertzioari lagundu ahal izateko, bono batzuk atera ditu. Ekimen izugarria iruditu zaigu denoi, txalotzekoa, benetan. Eta harrera ikaragarria izan duela ikusi ahal izan dugu: bonoen salmenta martxan jarri den momentutik, izugarritzko jende-ilarak ikusi ditugu kaleetan hauek erosi ahal izateko. Ilarak egotea normalizat hartzen badugu ere, bono batzuk saltzeko horrenbeste denbora behar izatea ez zaigu horren normala iruditzen.

Ulertezina iruditzen zaigu gaur egun hau dena kudeatzeko horren gestio txarra edukitzea Udalak: pertsona bat erroldatuen lista begiratzeko eta besteak bonoak saltzeko. Guzti hau gestioatzeko bertako langileei erreminta aproposak eman behar zaizkie, eta argi dago oraingo honetan ez dizkietela eman. Bi langile nahikoak ez badira, ez al da ba momento egokia jende gehiago kontratatuzko? Gustura asko joango liriteke asko eta asko egun gutxitarako kontratua izanda ere. Lau ordu pasatxo egon naiz ilaran zain. Jendeak uler dezan: goizeko 9:00etan bertan nengoan. Eta, sorpresa! 13:00etan bertako langileek bazkaltzera joan behar dutela eta arratsaldeko 17:00etan itzultzeko esan digute. Papeltxo bat zenbaki batekin eman eta denak etxera! *Etorri arratsaldean bonoak nahi badituzue!* Lotsagarria! Goiz guztia han pasatu ondoren, arratsaldean berriz itzultzeko! Eta

hara, arratsaldean beste ezusteko bat! Goizean ilaran egon garenoi lehentasuna eman beharrean bi ilara egin ditzute, jendea txandaka hartzeko. Ez dira hor bukatu sorpresak, baina: txanda iritsi zaidanean, etxeko NANak erakutsi eta Elgoibarko helbiderik ez zuten NANak ez dizkirate hartu, nahiz eta Elgoibarren erroldatuta egon. Itxuraz langile horiek ez zeukaten Elgoibarren erroldatutakoen zerrendarik, eta NANeko helbideari begiratzen zioten. Huteskundeetarako gutuna bidaltzen digute ba etxera! NANa berri gabe izan arren, Elgoibarren erroldatuta gaude etxeko denok! XXI. mendean beste tresna batzuk erabili daitezkeela iruditzen zait behar diren egiaztapenak egiteko.

Atzera begiratu eta sekulako ilara ikus nezakeen etxera joan naizen momentuan. Denak haserre bizian, hau jasanezina delako. Bertako langileek ez dute honen errurik, argi dago. Udaltzaingoak ere ikusi du bertan zegoen arazoa. Seguru gaude Udalean goizean goizetik zeukatela guzti honen berri, baina ez dute ezer egin. Ilara luzatzen utzi dute eta ixteko ordua iritsi denean, denak etxera.

**M.O.**

## Elgoibarko Izarrak eta Udalak 2020rako lankidetza hitzarmena sinatu dute



Elgoibarko Udalak 184.000 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteari, behin behinean, 2020an zehar euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko. Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkartearen presidentek sinatu zuten 2020rako lankidetza hitzarmena, eguztizenean. Euren batera, Maialen Gurrutxaga, Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen arloetako zinegotzi arduraduna eta Elgoibarko Izarrako eta Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko eta Euskara sailletako teknikariak ere izan ziren. Dirulaguntza hori bi udal sailletatik bideratuko dute. Horrela, Udalaren Euskara Sailetik 124.000 euro jasoko ditu Elgoibarko Izarrak eta Udalaren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailetik, berriz, 60.000 euro. Euskara elkarteak eskerrak eman dizkio Udalari, izan ere, Elgoibarko Izarraren ustez, ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu, eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatzeko. Hala ere, sinatzaileek argi utzi zuten koronabirusaren pandemiak eragindako egoeran, gerta daitekeela hitzarmenean jasotako ekintza guztiak egin ezin izatea, eta horrek eragina izango lukeela, jakina, hitzarmenean jasotako diru kopuruan ere.

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea, astelehenean

Jubilatu eta pentsiodunen elkarteak berriz ekingo dio pentsio duinak eskartzeko dinamikari. Hala, ekainaren 1etik aurrera, elkarretaratzeetara itzuliko dira astelehenero. Kalegoen plazan bilduko dira 19:00etan, 1.080 euroko gutxienezko pentsioa aldarrikatzeko.

Dolua familian lantzeko saioak

Urbizixa elkarteak dolua familian lantzeko hainbat hitzaldi antolatu ditu ekainerako. Besteak beste, *dolua eta galera konfinamendu garaian eta familiaren "normaltasuna" berrasmatzea* izango dira Dolugunea familian egitasmoan landuko dituzten gaietako batzuk. Eider Otxoa dolu terapeuta eta Iñaki Arregi izango dira hizlariak, eta Zoom plataforma digitalaren bidez emango dituzte saioak, ekainaren 9an euskaraz, eta 10ean, gaztelanieraz, 18:30etik 20:00etara. Parte hartzeko aurrez izena eman behar da, 627 117 819 telefonora deituta.

## Auto batek oinezko bat jo zuen domekan Urazandin



Zebrabidetik pasatzen ari zen adineko emakume bat jo zuen auto batek domekan, 20:00ak inguruan, Urazandi kalean. Lekukoek jakinarazi zuten, pasaria bat eman ostean etxerako bidean zihuan emakumea eta zebrabidea pasatzen ari zela jo zuen autoak, atzerantz egiteko maniobra egiten ari zen unean. Emakumea, adinekoa eta makuluekin dabilena, lurrean etzanda gelditu zen. Udaltzainak etorri ziren lehenik, eta ambulanzia ondoren. Larrialdi zerbitzuetakoek egin zizkieten galderei erantzuteko moduan zegoen emakumea, eta esku-ohere batera igo ostean ambulanzian eraman zuten Mendarora. Emakumeak ez zuen ezer hautsi, baina kolpe handia hartu zuen aurpegian eta saihestetan. Errekuperatzen ari dela esan dute etxekoek.

## Merkataritza sustatzeko bonoen kanpainak jende ilara luzeak sortu zituen eguaztenean eta haserrea eragin zuen

Eguaztenean hasi zuen Udalak herriko merkataritza sustatzeko bono kanpaina, eta herritar asko gerturatu zen lehen unetik bonoak erosteko lokalera. "Lau ordu ilaran egon ostean, muturrean aurrean itxi digute lokala eta arratsalderako



zenbaki bat eman digute. Eta arratsaldean joan garenean ez digute lehentasunik eman goizean zain egon garenoi, bi ilara egin dituztelako, bata, zenbakia zutenentzat, eta bestea, ez zutenentzat, eta txandaka sartuarazi gaituzte lokalera". Kalebarren plazatik Kalegoen plazara arteko jende ilarak sortu ziren, eta herritarren artean haserrea nagusitu zen. Udaletik esan dutenez sistema desberdinak azertzen aritu dira kanpainarako, eta Txankakuaren sistema erabiltzea erabaki dute, "beraiek dutelako esperientzia". Adierazi dute inork ezin zuela aurreikusi horrelako eskaera egongo zenik. Egun bakarrean mila bonotik gora saldu zituzten, baina jakinarazi dute ekainaren 15etik aurrera beste bono kanpaina bat hasiko dutela, eta irailean ere horrelako ekimenak antolatuko dituztela. Elgoibarko Udalak 60.000 euro erabili ditu herriko merkataritza sustatzeko bonoen kanpainarako. 4.000 bono inprimatu dituzte guztira. Bono bakoitzak 15 euroko prezioa izango du, eta Udalak beste 15 euro gehituko ditu; beraz, azken balioa 30 eurokoa izango da. Pertsona bakoitzak gehienez ere bi bono eskuratu ahal izango ditu, eta diru kopuru hori ekainaren 14ra arte trukatu ahal izango du. Bonoak erosteko 14 urte beteta eduki behar dira, eta Elgoibarren erroldatuta egotea ezinbestekoa da.

### Mendaron, 14.000 euro

Mendaroko Udalak 14.000 euro jarri ditu tokiko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko bono kanpainarako. 30 eta 15 euroko bonoak izango dira. 30 euroko bonoetan, herritarrek 20 euro ordainduko ditu eta Udalak 10; 15 eurokoetan, herritarrek 10 ordainduko ditu eta Udalak 5. Mendaroko Udaleko arduradunek kalkulatu dutenez, bonoen kanpainak 42.000 euroko ekarpena egingo dio herriko merkataritzari. Dendetan egongo dira salgai bono txartelak, irailaren 30era arte, aurrez bukatu ezean.



## Elgoibarko Udalak 171.000 euroko laguntza emango die ikastetxeei

*Bizitzarako prestakuntza euskaraz* programaren baitan, Elgoibarko Udalak hitzarmen bateratua sinatu zuen eguaztenean herriko ikastetxeekin. Guztira 170.925,45 € euroko dirulaguntza emango die Udalak 2019/2020 ikasturtean hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Hitzarmena honakoek sinatu zuten: Ane Beitia Elgoibarko Udaleko alkatetik; Jabier Larrañaga Elgoibar Ikastolako zuzendariak; Raquel Agirre Herri Eskolako zuzendariak; Iñaki Odriozola Arreiturre Institutuko zuzendariak; Alberto Iturricastillo MEKA Lanbide Eskolako zuzendariak eta Ixaka Egurbide IMHko zuzendariak.



Dirulaguntza hori Udaleko Hezkuntza, Gizarte Ongizate, Euskara, Berdintasun, Sustapen Ekonomiko eta Enplegua eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako sailek bideratu dute. Laguntzen zenbatekoari dagokionez, hauek datuak: Herri Eskola, 26.384 euro; Institutua 8.717,80 euro; Ikastola, 57.084,55 euro; Meka, 5.900 euro, eta IMH 71.314,08 euro.

## Mendaroko Udalak 88.000 euro jarriko ditu koronabirusak eragindako kalteak arintzeko eta herriko ekonomia berraktibatzeko

Mendaroko Udalak 88.000 euro bideratuko ditu COVID-19 gaitzak eragindako kalte ekonomikoak leuntzeko. Diru-sarrerarik gabe oinarritzko premiak bete ezin dituzten herritarrei "oinarritzko beharren saskia" ziurtatuko die Udalak. Laguntza hori espezieetan emango die Udalak, dirutan barik. Hau da, tiketak banatuko dizkiete egoera zaurgarrian daudenei eta tiket horiekin jana eta higiena ziurtatzeko beharrezko dituzten produktuak eskuratu ahal izango dituzte herriko dendetan. Bestetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako jardueri dirulaguntza zuzenak emango dizkiete, baita alokairurako edota irekitze faserako laguntzak ere. Terrazen kuota ez diete kobratuko aurten ostalariei, eta terraza handitzeko aukera izango dute tabernariak. Horrez gain, lehen seihileko zabortasa %50ean bonifikatuko zaie, saltokiak itxita izan dituzten garaiko uraren kuota ez diete kobratuko eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kobrantza atzeratu egingo dute.



### Astelehenean zabalduko dute Gotzon Garate Udal Liburutegia

Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko beste liburutegiekin batera irekiko ditu ateak Elgoibarko liburutegiak ere astelehenean, koronabirusaren ondorioz bi hilabete baino gehiago itxita egon eta gero. Mailegua eta itzulketa izango dira martxan jarriko diren lehen zerbitzuak. Aita Agirreko beheko solairuan jarri dituzten kaxa batzuetan laga beharko dira maileguan hartutako liburuak, eta liburu horiek 15 eguneko berrogeialdia pasa ondoren jarriko dituzte berriro ere hartzeko moduan. Herritarrek maskararekin joan beharko dira liburak utzi edo hartzera, bi metroko tartea zaindu beharko dute, eta eskuak ondo garbitu beharko dituzte han bertan jarri duten gel hidroalkoholikoarekin. 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era egingo da zabalik liburutegia.

### Idoia Ortegak irabazi du Trinitateetako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa

Aurtengo Trinitate jaiak formatu tradizionalen ospatu ezingo diren arren, Trinitateetako nagusien danborrada iragartzeko lehiaketarekin aurrera jarraitzea erabaki zuen Atabal elkarteak. Lan bakarra aurkeztu da aurtengo lehiaketara, Idoia Ortegak aurkeztutakoa, hain zuzen ere, eta berak eskuratu du 300 euroko saria. Ortegak azaldu duenez, urtero aurkezten da lehiaketa honetara eta baita San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzekora ere. Antolatzaileek adierazi dute harrituta daudela aurkeztutako lan kopuruarekin, uste baitzuten konfinatuta egonda denbora libre gehiago izango zuela jendeak eta lan gehiago aurkeztuko zituztela lehiaketara.



### Gazteen lokalak zabaltzeko baimena eman du Elgoibarko Udalak

Alarma egoera ezartzeaz bat itxi zituen Elgoibarko Udalak gazteen lokalak, eta aste honetan bertan eman dute berriz zabaltzeko baimena, baina erabilerarako hainbat neurri hartu beharko dituzte gazteek. Udaleko arduradunak gazteekin bildu dira neurri horien berri emateko. Batetik, ordutegi zehatza izango dute: astelehenetik eguenera: 10:00-22:00; bariku, zapatu eta jai bezperetan: 10:00-23:00; eta domeka eta jaieguneetan: 11:00-22:00. Gehienez, 15 lagun bildu ahaliko dira, betiere kopuru horrek lokalaren gehienezko aforoa ez badu gainditzen. Eserita eta bi metroko distantziara. Maskara erabili beharko dute uneoro, eta garbitasunerako eta desinfekziorako neurriak bete beharko dituzte. Edozein zalantza izanez gero, gazteak Elgoibarko Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailarekin harremanetan jar daitezke: 943 74 10 50 / [gazteria@elgoibar.eus](mailto:gazteria@elgoibar.eus).



## Amiantoa agertu da kiroldegi berriko obretan, baina jaso dutela esan du Udalak



Joan den martxoaren 17an, Olaizagako kiroldegiko igerileku estaliak handitzeko obretan, fibrozementuaren hondakinak aurkitu zituzten, eta Udalak esan duenez, mota honetako obretan amiantoa aurkitu izan den beste kasu guztietan egiten den bezala, lan tekniko berezia egin behar izan dute material hau erretiratzeko. Udalak, Amenabarren bitartez, lan plan bat eskatu zion Amianto y Gestion S.L.U. enpresa espezializatuari, eta haiek 60 m<sup>3</sup> lur eta 5 ml lurzoruhodi kendu eta enkapsulatu behar zirela jaso zuten txostenean. Lan-plan honi apirilaren 15ean eman zitzaion sarrera Eusko Jaurlaritzan, eta maiatzaren 6an onartu zuten. Maiatzaren 21ean eta 22an materiala kentzeko lanak burutu zituzten langileek "segurtasun-baldintza guztiak errespetatuz" eta onartutako planaren prozedura jarraituz. Udaleko arduradunek jakinarazi dute Osalanek urrats guztien berri izan duela hasieratik. Era berean, egindako analisiak kontuan, lurzorua ez daudela kutsatuta esan du Udalak. Amianto kantitate "oso txikia" antzeman den arren, hura kentzeko tratamendu espezializatua egin behar izan dela adierazi du Udalak eta gaineratu du gertaera honek ez duela inolako arriskurik ekarri inguru horretan bizi diren edo ibili diren bizilagunen osasunerako.

## Udako kirol campusa bertan behera laga dute, koronabirusaren pandemiak eraginda



Gaur egun bizi dugun osasun krisia kontutan izanik, Elgoibarko Udako Kirol Patronatuak aurtengo Udako Kirol Campusa bertan behera uztea erabaki du. COVID-19 zabaltea eragozteko helburuarekin, osasun arloko agintariak egindako gomendioak kontutan hartuta eta segurtasun eta higiene arloan beharrezko neurriak %100ean bermatu ahal izateko "zailtasunak" ikusita, erabakirik zentzuzkoena eta arduratsuen delako uste dute.

## Interneterako konexioa eta ordenagailuak ikasleen eskura, Mendaron

Alarma egoeraren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren aginduz ikastetxe guztiak itxi zituzten martxo erdialdean, eta on-line hasi ziren klaseak ematen. Irakaskuntza-modalitate hori, baina, ez da iristen haur eta gazte guztien hezkuntza eskubidea bermatzera, teknologia arrakalagatik, besteak beste. Mendaroko Udalak eta Ikastolak zaurgarria den kolektibo bat identifikatu du, teknologia eta Internetera sarbiderik ez zuena, eta baliabideak jarri dizkie: Ikastolak ordenagailuak laga dizkie eta Udalak Interneterako konexioa ahalbidetu die konfinamendu gairako, Euskaltel enpresarekin elkarlanean. Eskolak hastean itzuli egin beharko dituzte.

## Padel kantxa zabalik, Mendaron

Udalak padel pista zabaldu du berriro, baina hainbat baldintza bete beharko dituzte erabiltzaileek aurretarranean. Ordua beharko dute, Lagun Betikoak edo Uztargi tabernetan, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 22:00etara. Pista bakoitzean bi pertsona bildu ahal izango dira gehienez, eta elkarren artean bi metroko distantzia mantendu beharko dute. 14 urtez azpikoek heldu batekin joan beharko dute, aldagelak erabiltzerik ez da izango, eta pilota elkarri pasatzeko raketa edo hanka erabiltzea aholkatu dute, eskua beharrez, bai eta txisturik ez botatzeko eskatu ere. Saioa amaitzean kantxatik lehenbailehen irten behar dela jaso dute, eta luzaketak kanpoan egin behar direla. Orduak bost euroko prezioa izango du, bi lagunentzat.

## MASKARAK

# Noiz, non, eta nola jantzi behar dira?

Maiatzaren 21etik derrigorra da maskara erabiltzea leku itxietan eta bi metroko tartea gorde ezin den gainerako espazio guztietan. Maskaren erabileraren inguruan, hala ere, zalantza ugari dituzte herritarrek, eta Arriola botikako Irune Arriolarengana jo dugu argibide eske.

- AINARA ARGOITIA / ASIER ORBEA -

## IRUNE ARRIOLA

Arriola botikakoa

### ◆ Zein motatako maskarak saltzen dituzue zuek farmazian?

Kirurgikoak eta FFP2 maskarak. Kirurgikoak gehienez lau orduan erabil daitezke, eta ondoren, bota egin behar dira. Ezin dira berrerabili. FFP2ak, berriz, bost egunez erabil daitezke. Botikarien Elkargotik ohartarazi ziguten mantenimendu bat behar dutela FFP2 maskarek. Ondo sikatu behar dira, maskara hauek gorputzak berak botatzen duen hezetasuna bakarrik toleratzen dutelako. Alkoholarekin, lixibarekin edo beste zerbaitekin umelduz gero, ez dute balio, filtroa hondatu egiten delako. Hasieran gomendatu ziguten lehertzeko, labean sartu behar genituela, 30 minutuz eta 70 gradutara, eta mantentze horrekin gehienez bost egunez erabili ahal genituela. Orain, berriz, ohartarazi digute hobe dela bost maskara erostea eta egunean bat erabiltzea. Egun batean erabilitako hori berrogeialdia betetzen laga behar da gero, eta beste bat erabili, txandakatuz. Era horretan, lehenengo erabili duzuna berriz erabiltzerako bost egun pasatzen dira, eta tarte horretan, birusak galdu du eraginkortasuna.

### ◆ Zer ezaugarri dituzte batzuek eta besteek?

Kirurgikoekin (alde batetik txuriak eta bestetik urdinak direnekin) inguruak babesten ditugu, baina ez geure buruak. FFP2 maskarekin geure burua babesten dugu, eta aldi berean, besteak kutsatzea ere saihesten dugu. Telazkoen eraginkortasuna ez dago frogatuta eta esan digute beharbada arriskutsuagoa dela erabiltzea ez erabiltzea baino, umeltzean bakteriak eta birusak pila daitezkeelako, eta guk horregatik ez ditugu salduko farmazian.

### ◆ Zenbat balio dute kirurgikoek, eta zenbat, FFP2ek?

Kirurgikoak 0,96 euroan saltzen ditugu, Espainiako Gobernuak ezarri zuen prezioan. FFP2ak, berriz, 5 euroan saltzen ari gara orain. Hasieran garestiagoak izan ziren, garestiago saltzen zizkigutelako. Eta bai, gastu bat da. Bezero batzuk entzun dute beste autonomia erkidego batzuetan gizarte segurantzian ari direla maskarak banatzen, baina hemen ez dute ematen ezer.



*“Maskara, edozelakoa dela ere, ezin da ukitu, ertzetako gometatik ez bada”*

### ◆ Jendea ari da maskarak Internetez erosten ere eta arriskutsua izan daitekela ohartarazi dute osasun agintariek.

Nik neuk behintzat ez nuke osasuna zaintzeko den ezer erosi Internetez.

### ◆ Erabilerak okerrak ere ikusi ditugu kalean. Nola erabili beharko genituzke?

Maskarak jantzeko eskuak garbitu behar dira aurrena. Maskara kirurgikoaren kasuan, errekaduetarako edo 2 metroko distantzia gorde ezin den lekurako jantzi, erabili, eta ondoren, ertzetako gomatik hartu, kendu eta bota egin behar da. Eta hori egin ostean, berriro eskuak garbitu. Hori egitea oso zaila da eta nik ulertzen dut jendeak ondo erabili ezin izatea, baina ikasi egin behar da, hau da-eta tokatu zaiguna. Maskara bera, edozelakoa dela ere, ezin da ukitu, ertzetako gometatik ez bada. Gometatik helduta kendu eta jantzi behar da beti.

### ◆ Terrazetan gabe ikusi dugu jendea. Kontsumitzeko kendu daiteke berez, baina ez al duzu hor arriskurik ikusten?

Bai. Iruditzen zait Gobernuak neurri batzuk jarri dituela tabernariek tabernak zabaldu ahal ditzaten, baina neurri horiek ez datoz bat guri egiteko eskatzen diguten gauzekin. Terrazetan ezin da bi metroko tartea gorde eta kontsumitzeko maskara kendu eta ipini ibili behar bagara, ez gara maskara egoki erabiltzen ari.

### ◆ Maskararik ba al dago botiketan?

Bai, momentu honetan ez dago maskarak eskuratzeko arazorik. Hasieran, jendea etortzen zitzaigun eskean eta guk ez geneu-

kan lortzeko aukerarik, baina normaldu da egoera.

♦ **COVID-19 birusa zabalduen zegoenean edo daturik okerre-nak izan genituen garaian maskara erabiltzea ez zela beharrezko esan zitzaigun. Orain, berriz, datuek hobera egin dutenean, derrigorrez erabili behar ditugu. Kontraesana ematen du. Nola ulertu behar dugu hori?**

Hasieran ez ziren ausartu esatera maskara erabiltzea derrigorra zela maskararik ez zegoelako, baina orain, jende guztiak eskuragarri dituzenean, derrigortasuna ezarri dute.

♦ **Maskara derrigorrez erabili beharra, baina, egokia iruditzen zaizu?**

Bai, bai.

## HERRITARREN IRITZIA

Bi metroko tartea gorde ezin den leku guztietan maskara erabiltzea derrigorra da astelehenaz geroztik, eta herritarrek nola hartu duten jakin nahian, astelehenean bertan, lehenengo egunean, galdezka aritu ginen kalean.

### NEREA GOMAR, 20 urte



“Ondo moldatzen naiz. Eibarko Ego Gain zentro gerontologikoan egiten dut lan eta lantokian aspalditik ari gara maskara jantzita lanean. Hasieran oso gogorra egin zitzaigun maskara eta norbere babeserako ekipo guztia jantzita lan egin beharra, baina ohitu ginen. Kalerako jantzen dudana lehenengo eguna da gaur, baina egia da Mercadonara joateko-eta jantzi izan dudala. Etxean, lantokian emandako dezente dauzkat, baina gaur daramadan hau oparitu egin zidaten eta egunero erabiltzen dut. Kendutakoan ur berotan desinfektatzen dut, xaboa botata. Iruditzen zait neurri egokia dela. Jendea irten da kalera eta ezer ez balego moduan dabil. Ikusten ari naizena da neurri batzuk errespetatzen direla, baina beste asko ez, eta iruditzen zait lasaiegi dabilela jendea kalean. Kezkatzen nau horrek. Adinekoen egoitzan kasu asko ikusi ditugu gertutik eta beharbada horregatik kontzientegoa naiz”.

### ARANTXA ZUBIZARRETA, 56 urte



“Guk aurrez ere jantzi izan dugu. Aitak [Jose] arnasa hartzeko arazo batzuk ditu eta traba egiten dio, baina etxerako bidea ahalik eta jende gutxien dagoen lekutik egiten dugu, eta bi metroko tartea gorde ahal dugunean kendu egiten du. Normalean, pantaila erabiltzen du, baina traste handiegia dela iruditu zaio gaur eta maskara jantzea erabaki du. Maskara jantziaraztea neurri egokia iruditzen zait, kontuan izanda bi metroko tartea gordetzea dela garrantzitsua ez kutsatzeko eta oraindik jende asko gaudela kutsatzeko arriskuan. Guk aurreko egunetatik erosiak geneuzkan maskara batzuk, arriskua ikusten genuelako Gobernuak maskararen erabilera derrigortzean jendea arrapaladan joatekoa farmaziara, zeuden guztiak hartzera, lehen elikagai batzuekin gertatu zen bezala. Paranoia moduko bat sortzen zaigu halakoetan. Gauza bat esan nahiko nuke, hala ere. Gastu ekonomiko handia suposatzen du honek herritarrontzat eta denok ez daukagunez ahal ekonomiko bera, iruditzen zait Elgoibarko Udalak ere aztertu beharko lukeela maskarak banatzea. Eibarren txartel bana bidali dute etxetara, eta horrekin kalean jarri dituzten makineta eskuratu ditzakete maskarak herritarrek, debalde”.



### ARANTZA ALONSO, 62 urte



“Oso gaizki ari naiz konpontzen. Ez zait gustatzen. Gainera, orain uda dator eta bero handi honekin oso gaizki nabil arnasa hartzeko. Hala ere, derrigorra da erabiltzea, eta nik derrigorrak diren neurri guztiak betetzen ditut, baina ez zait iruditzen neurri egokia. Metro eta erdi edo bi metroko distantzia gordetzea eta eskuak garbitzea da hemen garrantzitsua. Lehen, kasu gehiago zeudenean, ez zen derrigorra erabiltzea, eta orain, bai, eta nik uste dut dela orain maskara asko daudelako eta saldu egin behar direlako”.



## MASKARAK

### INMA ALMENARA, 58 urte

“Niri kostatzen ari zait maskara erabiltzea, arnasa hartzeko-eta traba egiten didalako, baina derrigorra denez, erabili egin behar dugu eta punto. Ez dago besterik. Beti erabili izan dut maskara, hasieratik eta moldatzen naiz. Lagunekin paseatzera joaten naizenean ere jantzen dut. Ez dakit babesten gaituen edo ez, baina beti jantzen dut. Nik neuk egin ere egin ditut maskarak, telazkoak, filtradunak. Nik uste dut neurri egokia dela, baina berandu datorrela”.



### NURIA REVUELTA, 35 urte

“Ni oso gutxi irten naiz kalera orain arte, ume jaioberrira dudalako, eta oraintxe hasi naiz maskara jantzen ere, beraz ez dakit zer esan. Oraintxe hasiko naiz gehiago erabiltzen, batez ere amarekin eta umearekin nabilelako asko. Gaur, eguraldi honekin, bero pixkat ematen du, baina momentuz, arnasa hartzeko ezinik eta halakorik ez dut sentitu”.



### NEREA BASTIDA, 38 urte

“Bero honekin ez daramat oso ondo maskara jantzita ibili behar izate hau, baina ez dago beste erremediorik eta jantzi egin behar! Denon hoberako baldin bada, jantzi egin behar da. Buruko zapia daukat jantzita eta eskerrak horri, bestela jausi egiten zaidalako maskara. Berez leku itxietara sartzeko da bereziki, bi metroko distantzia mantendu ezin den lekuetarako, baina kendu eta ipini ere ezin da ibili eta horregatik jantzita eramatea erabaki dut etxera iritsi arte. Se-meei ez diet jantzi 6 urtez azpikoak direlako”.



### MARIA ARRIZABALAGA, 80 urte

“Erosoa ez da, ez. Arnasa hartzeko traba egiten du eta askotan apur bat jaitsi egin behar izaten dugu, arnasa ondo hartzeko. Ikusten dugunean jende gutxi daukagula parean horixe egin behar izaten dugu tarteka: apur bat jaitsi, eta gero, bere lekuan jarri berriro. Derrigorra jarri dute erabiltzea eta konformatu egin behar. Zer erremedio! Guk agindua bete eta aurrera. Horixe egiten dugu ia!”



### NEREA ZUBIAURRE, 44 urte

Ohituta nago maskara erabiltzera. Orain arte ere, beti erabili izan dut normalean; leku itxietara sartzeko-eta behintzat, beti. Egia da beroa ematen duela, baina ohitzea da kontua. Kanean jende asko dabil eta askotan ezin da bi metroko tarte hori gorde, beraz, erabili egin behar da. Udan ez dakit nola konponduko garen bero handiak hasten direnean, baina egokitu beharko gara. Maskara kirurgiko horietako bat daukat jantzita, bero gutxiago ematen dutelako hauek FFP2ek baino. Egunean bat erabiltzen dut, eta gero, bota. Gastu bat da hori. Ez dakit geuk erosi beharko ditugun beti ala emango dizkiguten. Eibarren, adibidez, makinak jarri dituzte kanean eta Udala ari da banatzen. Iruditzen zait laguntzaren bat eman beharko luketela maskarak erosteko, kontuan izanda erabiltzea derrigorrezkoa dela.



## GARRAIO ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUAK

Koronabirusak esparru eta sektore desberdinetako enpresetan izan du eragina, baina bere ondorioak oso bestelakoak izan dira batean zein bestean. Batzuk lanik gabe geratu dira, eta beste batzuk, lanez gainezka. Orriotan batu ditugu bi adibide.

- AINHOA ANDONEGI -



### IZASKUN SUDUPE

Dario Bus enpresakoa

Urteko sasoirik onenean harrapatu du koronabirusak Dario Bus autobusen enpresa. Aste Santutik aurrera izaten dute lan gehien enpresan, baina martxoaren 14tik ez dute apenas lanik egin. Hilabete gogorak bizitzen ari dira, eta etorkizunari ere kezka begiratzen diote. Izaskun Sudupe enpresako arduradunak hitz egin digu bizi duten egoerari buruz.

“Pentsatu nahi dut zulo honetatik ere irtengo garela”

♦ **Martxoaren 14an ezarri zuen Espainiako Gobernuak alarma egoera. Nola eragin dizue?**

Guk ikastetxeekin lan asko egiten dugu, ikasleak eskoletara eramaten eta bueltan jasotzen, eta martxoaren 12an deitu ziguten ikastetxeetatik esaten hurrengo egunerako ez zutela zerbitzurik behar, aurrez aurreko eskolak bertan behera geratu zirelako. Hori izan zen lehenengo kolpea. Handik egun gutxira enpresetatik deitu ziguten, gauza bera esateko. Langileei ere ematen diegu zerbitzua lantegietara joateko, baina gomendatu zieten bakarka eta bakoitz bere autoan joateko, autobusean kutsatzeko arrisku handiagoa zegoelako. Azken enpresa martxoaren 26an galdu genuen. Garai honetan sagardotegietarako ere jende askok kontratatzen ditu gure zerbitzuak, eta baita Errioxako ardandegiak bisitatzeke ere, eta horiek guztiak ere bertan behera utzi dizkigute. Ezkontzarik eta jaunartzerik ere ez denez egon, horiek guztiak ere galdu ditugu, eta Aste Santuko eta udako oporrak ere bai. Une honetan bi autobus txiki bakarrik dauzkagu martxan, Deba eta Zumaia arteko linea

egiten. Guretzako sasoirik garrantzitsuena izaten da hau, Aste Santutik ikasturte amaierara artekoa, baina egoera honekin ikasturte amaierako txangoak ere ez dira egingo. Beraz, martxoaren 13tik ia-ia lanik egin gabe gaude, eta hori oso gogorra da, ez daukagulako diru-sarrerarik eta, aldiz, gastuak betikoak direlako.

♦ **Udan badirudi bidaiatu ahal izango dela. Horrek lagunduko dizue?**

Udan Europarako bidaiak egiten ditugu batez ere, eta oraindik ez dakigu mugak irekiko dituzten, baina irekitzen badituzte ere, ez dut uste jendea berehalakoan hasiko denik Europara bidaiatzen. Jendeak bidaiatzeko konfiantza berreskuratu beharko du, eta hori ez da egun batetik bestera etorriko. Guk galdutzat ematen dugu udako lana.

♦ **Zein egoeratan daude zuen langileak?**

12 langile gara, eta egoera normalean sasoi honetarako beste pare bat kontratatzen ditugu lanari aurre egin ahal izateko. Une honetan lineako autobus txiki horietan dabilzan langileak bakarrik daude lanean; beste guztiak aldi baterako enplegurako erregulazio espedientean sartuta daude. Eta gu bulegoko lanak egiten ari gara apur bat.

♦ **Aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteak ekainaren 30ean amaituko direla iragarri du Gobernuak. Hortik aurrera, zer?**



Ez dakit, baina laguntzarik ezean ezin izango diogu lantalde guztiari eutsi. Autobus enpresek, gainera, inbertsio handiak egin behar izaten ditugu merkatuko azken autobusak edukitzeko, eta ez badaukagu sarrerarik, ezin izango ditugu leasingeko kuotak ordaindu, ez digutelako moratoriarik eman. Modu honetan hila-bete batzuk iraun ditzakegu, baina luzaroan ez, eta gure aurreikuspenen arabera, irailera arte ez gara hasiko lanean, eta irailean ere ikusi beharko dugu zein den egoera. Gainera, esaten ari dira udazkenean izango dugula kasuen beste gorakada bat, baina nik ez dut horretan pentsatu ere egin nahi.

♦ **Eskolara itzulerak eragin zuzena dauka, beraz, zuenean?**

Bai, bai, irailean ez badira eskolak zabaltzen egoera larrian egongo gara benetan. Irailean berriz lehen bezala hasten bagara lanean eta fakturatzen, aurrera egiteko moduan egongo gara, baina bestela ez dakigu zer gertatuko den. Eskoletarako eta enpresetarako zerbitzuak martxan jartzea klabea da guretzako.

♦ **Familia-enpresa da zuena. Nola bizi duzue hau guztia?**

Niri galdetzen didatenean zer moduz nagoen, beti erantzuten dut osasunez ondo nagoela, baina bestela, lan aldetik, oso gaizki. Baina jende asko dago gure egoera berean eta ez dut pena eman nahi, beraz, aurrera begiratu behar dugu. Gure kasuan, bakoitzaren izaeraren arabera, desberdin bizi dugu egoera, baina denok gaude kezkatuta, guregatik eta baita gure langileengatik, azken



## GARRAIO ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUAK

batean familia asko daudelako inplikaturik honetan. Ni hasieratik ibili naiz bankuekin harremanetan, eta Elkargiren bitartez dirulaguntza interesgarri bat lortu dugu. Horri esker hilabete batzuetarako finantzazioa daukagu, baina diru hori bost urtetan bueltatu behar dugu. Interes oso apalean eman digute, baina horrek beste karga bat sortuko digu aurrera begira. Sei bat hilabeteko egoera honek bost urterako karga ekarriko digu. Alde batetik, lasaitasuna ematen dizu dirulaguntza horrek, fakturaziorik gabeko hilabeteetan bizirauten lagunduko digulako, baina gero hori ere ordaindu beharko dugu. Egia esanda, lo asko galtzen ari gara.

### ◆ Zein koloretakoa ikusten duzu etorkizuna?

Une honetan iluna, baina uste dut irtengo garela. Azken krisialdia oraintxe hasiak ginen gaintitzen eta hau etorri zaigu bat

batean, baina pentsatu nahi dut zulo honetatik ere irtengo garela. Ez da erraza izango, mundu mailakoa delako hau eta gainera, sektore guztiei eragin dielako, eta horri buelta ematea zaila izango da. Ez dut ezkorra izan nahi, baina gauzak zail ikusten ditut. Kontsumoan eragin handia izango du honek, familia asko egoera ekonomiko larrian egongo dira, eta euren lehentasuna oinarritzko beharrak asetzea izango da. Autobusen kontratazioa ez da oinarritzko beharra, beraz, gu apur bat atzetik joango gara. Hala ere, pentsatu nahi dut irtengo garela zulo honetatik ere. 53 urte ditu enpresak eta ibilbide horretan tokatu izan zaizkigu krisialdi gogorak eta lortu dugu aurrera egitea. Espero dut hau ere gaintitzea, eta ea hemendik bi urtera 55. urteurrena ospatzeko moduan gauden.



## JUDITH LOIOLA

Goar aholkularitzakoa

**Koronabirusaren krisiak lan jarduna eten egin du enpresa askotan, eta langile asko lanik gabe geratu dira. Enpresa gehienek aldi baterako enplegurako erregulazio espedienteak eskatu dituzte, eta zenbait lan-tegik beraien aholkularitza propioa duten arren, enpresa txiki askok jotzen dute horrelakoetan aholkularitza-etxeetara. Egoera berria eta ezezaguna da hau guztiontzat, eta aholkularitza-etxeetan lanez gainezka dabilta pandemia honek sortu duena ulertu nahian. Judith Loiola Goar aholkularitzakoak eman dizkigu azalpenak.**

“Aste gogorak pasatu ditugu, baina hasi gara lasaitzen”

### ◆ Nola harrapatu zintuzten alarma egoerak Goar aholkularitza?

Burura etorri zitzaidan lehenengo gauza gure bezeroak izan

ziren. Gure bezero gehienak enpresa txikiak eta herriko dendak dira, eta haiek ixteak guri ere zuzenean eragiten digu. Berehala hasi zitzaizkigun denak deika, zer egin behar zuten galdezka, eta momentu hartan guk ere ez geneukan informaziorik. Egoera hau denontzat da berria, eta guk geuk ere egunetik egunera ikasi behar izan ditugu gauzak. Gainera, informazioa egun batetik bestera aldatzen da, beraz, egun batean bezeroari gauza bat esaten diogu eta hurrengo egunerako ez du balio. Hasierako asteak benetan gogorak izan ziren, eta oso galdua ibili ginen. Ezjakintza ezinezkoa sortzen du, bai guri eta baita bezeroei ere.

### ◆ Enpresa askotan lana gutxitu egin da, baina zuen kasuan lan gehiago izan duzue pandemiaren eraginez.

Bai, lana bikoiztu zaigu, baina fakturazioa ez. Gure bezeroek hileroko kuota finko bat ordaintzen digute, eta egia da egoera honetan egin behar izan ditugun lan berezi hauengatik kuota apur bat igo diegula, baina ez da asko izan, eta batzuk kexatu zaizkigu. Baina lanez gainezka ibili gara, ohiko lanekin batera koronabirusaren gaia kudeatu behar izan dugulako. Administrazioetik epeak luzatu dituzten arren, lan batzuk betiko epeetan egiteko eskatu digute bezeroek, eta dena pilatu zaigu. Partikular batzuek ere errenta aitortpena egiteko eskatu digute, eta kobratzera tokatzen zaien bereziki, lehenbailehen egiteko eskatu digute, nahiz eta Ogasun Sailak epea luzatu duen. Aste gogorak izan ditugu, koronabirusaren kontu honekin informazioa topatu eta ondo ulertu behar genuelako, eta gero, gainera, gure bezero bakoitzaren egoerara moldatu behar genuelako guztia. Azken batean enpresa bakoitza mundu bat da, eta bakoitzak dituen beharrak desberdinak dira. Informazio asko eman dute, informazio oso aldakorra, eta horrek asko konplikatu du gure lana. Guk bereziki dokumentazio prestaketa lanak egiten dizkiegu bezeroei: publikatzen diren dirulaguntzetarako dokumentazioa prestatzea, enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteak bideratzea, autonomoei lan jardunaren eteteak kudeatzea mutuarien bidez, erreklamazioak egin... Partikular batzuek errenta aitortpena egiteko ere eskatu digute, eta etxeko langileentzako kontratuak ere bidera-

tzen ditugu. Egia esan, denetik egiten dugu.

♦ **Mutuak eta SEPE bera kolapsatuta egon dira eta jende askok atzerapen handiz kobratu ditu laguntzak. Atzerapen horiek kudeatzeko ere eskatu dizue bezeroek?**

Bai, guri deitzen digute bezeroek jakiteko euren espedientearekin zer gertatu den eta guk deitzen dugu SEPEra galdetzeko, baina askotan ez digute telefonorik hartzen, hango langileak ere lanez gainezka daudelako. Azkenean denek kobratuko dute, baina ez dakigu noiz, eta familia asko diru-sarrerarik gabe daude, oso gaizki pasatzen. Baina hori azkartzea ez dago gure esku, eta batzuek ez dute ulertzen. Aholkularitzari hileroko kuota ordaintzen dietenez, bezeroek uste dute edozer eskatu eta eman egingo diegula, baina guk ezin dugu dena soluzionatu. Fase bakoitzean zer egin daitekeen ere guri galdetzen digute, guk dena jakingo bagenu moduan. Gure lana askotan konplikatu egiten da, adibide bat ipiniko dizut: Lanbideek hiru milioi euroko dirulaguntza bat iragarri zuen lokalen alokairuetarako, jarduera etenda zuten enpresentzat. Bakoitzari gehienez 3.000 euroko laguntza emango zirela esan zuten, beraz, mila lagunentzako laguntza zegoen, gutxi gorabehera. Lanbideek esan zuen dirulaguntza horiek banatuko zituela eskatzen ziren ordenaren arabera, eta eskaera egiteko epea gaueko hamabietan hasten zen. Gure aholkularitzako hiru langileak goizeko 2:00ak arte egon ginen lanean, eskaera horiek bideratzen, eta gainera, guk ere ez genekien gure bezeroen artean zein ordena jarraitu. Eta, gu bezala ibiliko ziren gainerako guztiak ere, bost minutuan Lanbideko webgunea kolapsatu egin zen-eta. Hurrengo egunean barkamena eskatzen irten zen Lanbideko zuzendaria, esanez ez zuela uste horrelakorik gertatuko zenik. Baina, nola ez zen ba hori pasatuko? Aste gogorrek pasatu ditugu, baina orain hasi gara lasaitzen, eta eskerrak!

♦ **Dekretuak, boletín ofizialak, dirulaguntzen txostenak... dokumentu astunak izaten dira eta ulertzeko zailak. Nola moldatzen zarete hori guztia barnerratzeko?**

Dena ondo irakurri behar izan dugu, eta gauzak egunetik egunera ikasten joan gara. Baina txarrena izan da informazioa asko aldatu dutela egun batetik bestera. Espainiako Gobernuak berak ere ez dauka gauzak batera argi, eta ezjakintasun egoera horretan bezeroei informazioa ematerakoan kontu handiz ibili behar gara. Horrez gain, zapatu iluntzean Pedro Sanchez presidentea irteten zen informazio berri bat emanez, eta bezero batzuk momentu horretan bertan hasten zitzaizkigun deika. Zoratzekoa! Bulegoko telefonoa mugikorrera desbideratuta daukagu eta edozein orduan izaten ditugu deiak. Herritarrekin harreman gutxiago izateko, arratsaldeetan etxetik lan egitea erabaki genuen, eta ez dakit ez ote den okerragoa izan, telelanak ez daukalako amaierarik. Dena dela, orain etxetik lan egiteko prestatuta harrapatu gaitu honek guztiak. Iaz, Kalegoen Plazako etxea erori zenean okerrago geunden, baina orduan prestatu ginen etxetik lan egin ahal izateko. Baina orain, guraso, ira-



kasle, etxeoandre eta aholkulari lanak betetzen ari gara, eta ez da erraza.

♦ **Espainiako Gobernuak esan du ekainaren 30era arte baimenduko dituela enpleguaren aldi baterako erregulazio espedienteak. Zer gertatuko da horren ondoren?**

Une honetan indarrean dagoen legearen arabera, alarma egoera bukatu eta enpleguaren aldi baterako erregulazio espedienteak bukatzen denean, langile horiek sei hilabetez gutxienez kontratatuta eduki behar ditu enpresak. Espainiako Gobernuak baldintza hori jarri zuen erregulazio espedienteak onartzeko, eta hori betetzen ez duen enpresak jaso duen dirulaguntza bueltatu beharko du. Ezinbesteko arrazoiengatik eskatutako erregulazio espedienteak irauten duen bitartean enpresak ez du ordaintzen langilearen soldata eta ezta langileari dagokion gizarte segurantzako kuota ere. Gobernuak jarri duen baldintza hori arazo bilakatu daiteke enpresa askorentzat, agian lanik ez dutelako edukiko, baina une honetan horrela dago egoera; bihar, agian, beste zerbaitearako dute. Egia da baldintza hori erregulazio espedienteak aurkeztu ondoren jakin genuela. Hasieran erregulazio espedienteak aurkezteko prisa zeukaten enpresa gehienek, itxieraren aurrean dirulaguntzaren bat behar zutelako berehala, eta gerora baldintza horren berri izan genuen. Segituan konturatu ziren batzuk horrek arazoak ekarriko zituzkela, baina momentu hartan dirua behar zuten, eta momentukoari eustea erabaki zuten askok. Kontua da orain jarduera batzuk martxan jarri direla: merkatariek eta ostalariek, esaterako, mugekin izan arren, lanean ari dira, eta zenbait jabe langile batzuk lanean jarri behar izan dituzte. Kontua da ezinbesteko arrazoiengatik itxita egon diren negozioetan langile bat erregulazio espedientetik ateratzen badute, gero ezin dutela berriz sartu. Horregatik asko ez dira ausartzen langileak berriz lanean jartzen, eta jabeak bakarrik dabilta lanean, iritsi ezinda.

♦ **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Gogorra. Koronabirusak sektore guztietan eragin du eta krisia orokorra da. Egoera honetan, kontsumoa asko jaitsiko da eta jendeak oinarriko beharrak asetzeari emango dio lehentasuna. Egoera honetan norik erosiko du etxe bat edo auto bat? Benetako beharra duenak bakarrik erosiko du! Inork ez daki hau zenbat luzatuko den, eta egoera honen aurrean jendeak tentuz jokatuko du, inbertsio handiak gerorako utziz. Mundu mailako krisia da, ez da Espainia bakarrik dagoela kaltetuta, eta horrek agian eragin dezake erreperazioa azkarragoa izatea, denok batera irtengo garelako krisialditik, baina ezin da jakin. Eta udazkenean birusak berriz indarra hartzen badu, auskalo! Berriz etor daiteke alarma egoera eta atzera egiteko aukera egon daiteke. Guri horrek berriz lan karga handituko liguke, dokumentazio guztia prestatu beharko genukeelako berriro, eta seguruenik orain zabalik dauden enpresa batzuk gero itxita egongo direlako. Espero dut hau dena lehenbailehen bukatzea, eta hemendik ere, zerbaite ikastea. Ikasiko dugulakoan nago.



## HEZKUNTZA

# Ikastetxeetan hasi dute 'probaldia'

Astelehenetik, errefortzua behar duten DBH4ko, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasleak ikasgelara bueltatu zitezkeela esan zuen Jaurlaritzak, baina ikastetxeen esku laga zuen ikasgeletako atek zabaltzeko erabakimena. Elgoibarren, Lanbide Heziketako ikasleak izan dira ikasgeletara itzultzeko lehenengoak. Gutxi batzurekin hasi dira IMHn eta Mekan.

- AINARA ARGOITIA / ASIER ORBEA -



## JOSU TORREALDEA

IMHko Lanbide Heziketako zuzendaria

### ◆ Nola egokitu zarete IMHn egoera berri honetara?

IMHko bi eraikinetara sartzeaz bat, dela administrazioa dagoen eraikinerara edo dela ikasgelak eta tailerra ditugun eraikinerara, eskuak garbitu behar dira hidrogelarekin. Derrigorra da hori, gauza jakina delako eskuak garbitzea, bi metroko tarte hori zaintzea eta maskarak erabiltzea direla hiru neurri eraginkorrenak birusa ez zabaltzeko. Administrazioa dagoen eraikinerara sartzeko ate bakarra daukagu, baina barruan norabide bakarra zehaztu dugu eta geziekin markatu barruko guneetara nondik sartu eta irten behar garen. Gelen eta tailerren eraikinean bi ate ditugu, eta bat erabiliko dugu sartzeko, eta bestea, irteteko. Barruan, korridoreetan, beti eskumatik ibiliko gara, ertzetik, eta solairu guztietan hidrogelak jarri ditugu, aldiro-aldiro eskuak garbitu ahal izateko.

### ◆ Zailtasunik izan duzue?

Ikasleek maskarak eta hidrogela dituzte eta tartek gordetzen ari gara tailerlean eta geletan. Geletan ez daukagu aparteko arazorik, mahaiak eta aulkiak bakarrik ditugulako eta horietara azterketak egitera bakarrik sartuko direlako ikasleak. Zailtasun handiagoak daude tailerlean, ikasleek hainbat erreminta eta makina ukitzen dituztelako. Joan zen astean egon ginen aztertzen nola kudeatu hori eta uste dut asmatu dugula sistemarekin. Ikasle guztiak maskara jantzita ari dira lanean, eta tartek ere gordetzen dira. Irakasleek bi mahaitan prestatu dute ikasleek erabili beharreko material guztia, eta ikasleek, eskola bukatutakoan, bertan laga behariko dituzte berriro



*"Ikasle gutxirekin posible zaigu sistema honi eustea, baina irailean dena zailduko zaigu"*

denak, topatu dituzten moduan. Ondoren, garbitasunezkoak etorrirako dira dena garbitu eta desinfektatzera. Ikasleek erabili dituzten makinatan txartel gorri bana jarriko dugu lana amaitutakoan, garbitzaileek jakin dezaten zeintzuk makina desinfektatu behar dituzten. Behin lan hori egindakoan, afixa berdea jarriko zaie berriro makinei, eta era horretan identifikatuko ditugu garbiak dauden makinak eta garbitzeko daudenak. Zailtasun handiena hori dago: sistema hori denbora luzean mantentzean. Momentu honetan ikasle gutxi batzurekin posible zaigu desinfekzio maila horri eustea, baina gero, ikasleak ikastetxera sistematikoki etortzen hasten direnean eta enplegu prestakuntzarako arratsaldeko ikastaroak hasten direnean, dena zailduko zaigu. Hori da ikasturte berrirako daukagun erronka: nola mantendu garbitasun eta desinfekzio maila hori.

### ◆ Ikusten duzue aukerarik sistema honi eusteko irailean ikasturtea normal hasiko balitz?

Ez. Momentu honetan martxan daukagun sistema hau ez da bideragarria. Hor daukagu erronka handia: nola antolatu behar gara IMHko ikasle eta langile guztien segurtasuna bermatzeko? Hitz egin beharreko kontua da. Tailerlean, esaterako, aztertu behar dugu talde txikiagoei eman behar dizkiegun eskolak edo on-line prestakuntza eta aurrez aurrekoa uztertzen dituen eredu bultzatu behar dugun; hau da tailerlean egun gutxi batzutan etortzea ikasleak eta gainerakoa etxetik egitea edo...

### ◆ Momentuan zenbat ikasleek hasi dituzte eskolak IMHn?

Unibertsitate mailakoak on-line bidez ari dira prestakuntza jasotzen. Zikloetakoak hasi dira eskolara etortzen, baina gutxi



batzuk. 18 talde dauzkagu zikloetan eta errefortzua behar duten ikasleak bakarrik hasi dira. Lehengo bi hiru hilekoetan eta eskola ez presentzialetan ondo jardun diren ikasleei ikastetxera etorriarazteari ez diogu zentzurik ikusi. Gaur, 10-12 ikasle ari dira tailerlean eta datozen egunetan beste batzuk etorriko dira, baina ez modu sistematikoan. Gaur tailerlean dagoen talde hau, adibidez, hiru astelehenetan etorriko da bakarrik.

♦ **Nola aurreikusten duzu etorkizuna?**



## IÑAKI ODRIOZOLA

Elgoibar BH Institutuko  
zuzendaria

♦ **Astelehenean itzuliko dira lehenengo ikasleak Institutura. Zer mailatakoak?**

Bateik, DBH4ko ikasleak eta Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako ikasleak itzuliko dira, baina bakarrik errefortzua behar du-

tenak, hau da, errekuperatzeko zerbait daukatena, ekainaren 16-17-18an egingo direlako ohiko azterketak. Hilaren 1ean hasiko dira, era berean, aurten selektibitatea egingo dutenen eskolak ere. Hor bigarren mailako denak etorri behar dira izatez, baina 130 bat dira eta denak batera etorri ezin daitezkeenez, egutegi bat zehaztu dugu. Lehenengo astean ikasgai amankomunetakoak etorriko dira, eta bigarren astean, hautazkoetakoak. Gelako ratioa 26-27 ikaslekoa da gurean, eta, orain, bi taldetan banatu ditugu. Astelehenean etorriko dira hamahiru bat ikasle, eta martitzenean, gainerakoak. Ikastetxera, beraz, bi egunetan behin etorriko dira talde bakoitzekoak. Aurten, izatez, askoz denbora gehiago daukagu selektibitatea prestatzeko. Normalean ekainaren 6-7-8an izaten da eta aurten hilabete geroago izango da, uztailean. Hil osoa daukagu, eta ondo etorriko zaigu.

♦ **Nola egokitu zarete ikastetxean egoera berrira?**

Sarreran gel hidroalkoholikoak jarri ditugu eskuak garbitzeko eta ikastetxe barruan zirkuito antzeko bat sortu dugu; hau da, norabide bakarra zehaztu dugu, eta zintekin markatu nondik sartu eta irten behar diren ikasleak. Geletan ere, ikasleek nork bere mahai izango dute eta etxetik ekarritako materiala erabili beharko dute. Maskara janzteza ere derrigorra izango da. Korridoreetan ezingo da jenderik pilatu eta saiaturko gara hori zaintzen. Egon behar badu ikasleren batek liburutegira-edo eramango dugu, baina bestela, eskolak bukatutakoan, ikastetxetik kanpora irten beharko dira denak. Eta gero, garbitzaileak atzera eta aurrera ibiliko dira dena garbitzen eta desinfektatzen. Komunak-eta bi orduan

Ez dakigu zer izango den. Guk badakigu ate horretatik irten dakoan ikasle asko elkarrekin ibiliko direla ziurrenik, baina guri, IMHri, eskolan arauak betetzea dagokigu. Beste koronabirus olde bat agertuko balitz Elgoibarren edo IMHko ikasleen artean bertan ere, bat baino gehiago jarriko lirateke guri begira, nahiz eta denok dakigun kalean ere harrapatu daitekeela eta hemen baino arrisku handiagoa dagoela gainera. Guri, baina, ahal dugun guztia egitea dagokigu hori eragozteko.

## *“Froga antzeko bat da hau guretzat irailetik aurrera zer izango den aurreikusteko”*

behin garbituko dituzte.

♦ **Irailean zer izango den inork ez daki. Kezkatzen zaitue horrek?**

Bai, kezkatzen gaitu. Hau froga antzeko bat izan da guretzat, irailetik aurrera zer izango den aurreikusteko modu bat. Orain, 130 bat ikasle hasiko dira, egunetan 50-60 bat, baina irailen, dena normal joanez gero, 300 ikasle baino gehiago hartu beharko genituzke eta ez dakigu hori nola kudeatuko dugun. Baina ikusiko dugu orain zelan doan hau dena eta saiaturko gara irailen ere antzerako zerbait egiten.

♦ **Zaila ematen du irailen sistema honi eustea, hala ere.**



Bai, bai. Hemen, goikoak eta behekoak batuta 500dik gora ikasle dira eta gazteak zaintzea beti da zaila.

♦ **Erabaki zailena zein izan da egoera honetan?**

Zaila, izatez, ez da izan, baina beldur pixkat bageneukan. Ebaluazio-bilerak egin ditugu eta irakasleak ere apurka-apurka hasi dira etortzen, baina beldurra ematen digu zer izango den hau ikasleak etortzen hasten direnean. Koronabirus kasuren bat agertuko da? Ez da agertuko? Beharbada ez da ezer gertatuko, baina ez dago jakitzerik. Kasuek gora egingo balute berriro azaroan-edo, zer?

♦ **Martxoaren 12an ikastetxeak itxi zituztenetik gaur artekoaren baloraziorik egin duzue? Ikasleen errendimendu akademikoa hobetu dela ere irakurri dugu.**

Batxilergoan oso emaitza onak izan ditugu. Ikuskaritzatik galdetu digute ia gaitegi osoa eman ahal izan dugun edo egokitu behar izan dugun, eta Batxilergoko bigarren mailako irakasleek, adibidez, esan digute aurreikusitako material guztia eman ahal izan dutela. DBHn zailagoa egin zaigu eta egokitzapen batzuk egin behar izan ditugu. Familia batzuek ez zuten on-line ikasteko baliabiderik eta halakoak ere kudeatu behar izan ditugu. Batzuei ordenagailuak utzi dizkiegu eta ikasleren bati Wifi-a ere jarri dio Udalak.



## KULTURA



“Udalak ezin du antolatu jendea multzo handitan elkartzeko aukera ematen duen ekitaldirik”

## ANDREA ARRIOLA

Elgoibarko Kultura zinegotzia

**Kultur jarduerak ekainaren 1etik aurrera antolatzeko baimena eman du Eusko Jaurlaritzak, eta Elgoibarko Kultura Sailean ere lanean ari dira poliki-poliki herriko kultur eskaintza martxan jartzeko. Ekitaldi txikiak antolatu daitezke momentuz, eta publikoa eserita egotea ahalbidetzen duten ikuskizunak izan behar dira. Jende multzo handiak saihestu behar dira, eta elkarren arteko distantzia mantendu behar da ekitaldietan. Baldintza horiekin kultur ekitaldiak antolatzeko modu berriak asmatu behar dituzte arduradunek, eta horri buruz hitz egin digu Andrea Arriola kultur zinegotziak.**

- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ Nola eragin du koronabirusak Kultura Sailean?

Zalantza beterrik gaude. Informazio asko ematen ari dira, eta informazio hori oso aldakorra da. Aldaketa horiek gauzak behin eta berriz pentsatzera behartzen gaituzte, eta zaila da erabakiak hartzea.

### ◆ Trinitate Jaiak ate joka ditugu. Izango al dugu ospakizunik?

Gauden egoera kontuan hartuta, ezin dira jaiak betiko formatuan antolatu, eta beste modu batean antolatzeko saiakera egin dugu. Horretarako, Trinitateetan parte hartzen duten elkarteekin harremanetan egon gara, beraien nahiak eta iradokizunak jaso eta aztertzeke. Azkenean erabaki dugu kalean egiten diren ekintzak bertan behera uztea, baina jai-giroa nola edo hala sortuko dugu. Eskatzen zaizkigun osasun neurriak kalean ezin ditugu bete. Badakigu tabernak zabalik daudela eta jendea joango dela tabernetara, baina guk ezin dugu antolatu jende multzo handitan elkartzeko aukera ematen duen ekitaldirik. Oraindik ez dugu egitaraua guztiz osatu, baina nahi dugu asteburu hori berezia izatea, eta horretarako kale-giroa sortzen saiatuko gara kaleetan musika jarritz, baina lasaitasun giroan. Hau da, danborradarik eta Udal Musika Bandaren kontzertu berezirik aurten ez da egongo. Jaiak beste data batean egitea ere aztertu zitekeen, baina guk ez dugu horren alde egin. Dena dela, eragileren batek udazkenean ekitaldiren bat antolatu nahiko balu, aztertuko genuke.

### ◆ Eta, aurrera begira, udan izaten diren auzoetako jaiak eta sanbartolomeak, nola aurreikusten dituzue?

Horiei buruzko erabakirik momentuz ez dugu hartu, baina orain arte ezagutu ditugun moduko jairik ez da izango aurten, hori ziurtatu dezaket. Euskal Herriko hiriburuetan eta beste hainbat herritan ere jaiak bertan behera laga dituzte, eta gu ez gara salbuespena izango. Dena dela, herri horietan antolatuko dituzte ekintzak udan, eta gu ere zerbait egiten ahaleginduko gara udan zehar eta jaietako egun jakinetan, baina jendeak argi izan dezala aurten ez dela Txiki Eguna orain arte ezagutu dugun bezalakoa

izango, adibidez. Asko aldatu beharko litzateke egoera ordurako! Gogoa denok daukagu, eta dekretuak berez baimentzen du kultur ekitaldiak antolatzea, baina segurtasun neurri zorrotzak bete behar dira, eta ekitaldi askok ez dute horretarako aukerarik ematen. Arrisku handiegia hartuko genuke gure gain. Ikusten dugu jendea kalean dabilela, terrazetan ere biltzen direla, batzuk maskarekin eta beste batzuk gabe, baina hori beraien arduraren geratzen da. Udalak ezin du antolatu jendea multzo handitan elkartzeko aukera ematen duen ekitaldirik. Ez badago segurtasun neurriak betetzeko bermerik, ezin dugu antolatu. Dena dela, nahi dugu kultur eskaintza aktibatzea, eta ekainean bertan hasi nahiko genuke herriko kultur eragileekin batera ekitaldiak antolatzen.

#### ◆ Nola hasiko zarete kultur eskaintzan lehengora itzultzen?

Ekainaren 1ean Udak liburutegia zabalduko dugu, liburuak hartu eta entregatzeko. Aita Agirre eraikineko sarreran antolatuko dugu zerbitzu hori, baina liburutegia bera oraindik ez dugu irekiko jendearentzat. Zinema aretoak zabaltzeko baimena ere badago, baina guk Herriko Antzokian udan ez dugu pelikularik ematen, eta momentuz zerbitzu hori irailera arte gutxienez etenda egongo da. Aire libreko zinea ere bertan behera lagatzea erabaki dugu. Eserita egiten den ekimena da, eta ematen du egon daitekeela segurtasun neurri guztiak betetzeko aukera, baina aire libreko zinemaldira ume asko guraso gabe joaten dira, eta ezin dugu Polizia jarri ume horiek aukietan eserita eta distantziara egon daitezen. Egoera hobetzen bada eta segurtasun baldintzak aldatzen bada, agian aurrerago antolatzeko aukera izan dezakegu. Herriko kultur eragileak gogotsu daude, eta gu ere bai, nahi ditugu ekitaldiak antolatu eta horretarako elkarlanean gabiltza, baina segurtasunez egin behar ditugu gauzak.

#### ◆ Herriko Antzokia ikuskizun eszenikoetarako zabaldu daiteke, %50eko mugarekin. Aztertu duzue horrek izango duen eragina?

Herriko Antzokiak 400 eserleku ditu, beraz, 200 lagun kabituko lirateke. Baina ez dakigu oraindik ikusleen artean jarleku huts bat lagatzea nahikoa izango den ala bi laga beharko diren. Irailera bitartean argituko zaizkigu duda horiek guztiak. Gainerako kultur guneak ere ekainean ireki nahi ditugu; hitzaldi gela, Aita Agirreko areto nagusia eta sotoa esaterako, baina protokolo zehatz batzuk bete behar dira, eta ezin ditugu edozein modutan zabaldu. Jende kopurua murriztu behar da, garbitasuna areagotu, maskara jantzi joan... Etxetara banatuko dugu ekaineko kultur agenda eta bertan zehaztuko ditugu gauza hauek guztiak.

#### ◆ Ikusle gutxiago kabituko direnez, sarreraren prezioa mantentzea posible izango da? Eta, demanda handia duten ikuskizunetan jendea kanpoan geratzeak kezkatzen zaituzte?

Egoera berezia da, eta herritarrek lasai egon daitezke alde horretatik: ikusle kopurua gutxitu arren, Udalak ez dauka sarreraren

prezioa igotzeko asmorik. Demandari dagokionez, aztertu beharko dugu ikuskizun batzuetan saio bat baino gehiago eskaintzea, baina beti ez da posible izango. Gu ahaleginduko gara herritarren kultura beharrak asetzen.

#### ◆ Etxealdian herritar askok eskatu dituzte kultur saioak, baina, aldiz, kultur ikuskizunetara joateko ohitura galtzen ari da. Kontraesana dirudi.

Bai, horrela da. Jendeak eskatzen du gauzak antolatzeko, baina gero oso gutxi hartzen dute parte. Kultur eskaintza handia dago han eta hemen, eta ez dago denerako jenderik. Etxealdian jendeak kultura asko kontsumitu du, liburuak, musika kontzertuak... baina gero zinema aretoak ez dira betetzen. Izan daiteke etxeko butakatik kultura kontsumitzea erosoagoa egiten zaiola jendeari. Dena dela, Elgoibarren badago kultur ikuskizunetarako joera, bereziki, musikarako, eta espero dut kultur dinamika hori laster berreskuratzea. Gustatuko litzazkute herriari uda giro polit bat ematea, azken batean Kultura Sailaren nahia hori delako; herriari

bizipoza ematea. Guk gogoa badaukagu, eta eragileek ere bai, baina segurtasun neurriak une honetan oso zorrotzak dira eta kasu batzuetarako baimenik ez dimate ematen, eta Udak moduan arauak zorrotz bete behar ditugu. Norbanakoak bere erabakiak hartzen dituen bere ardurapean hartzen ditu, erantzukizuna berea da, baina Udak oso neurtuta antolatu behar ditu ekitaldi guztiak, eta egoera honetan are gehiago.

#### ◆ Gazte txartelarekin zinemara erdi prezioan joateko aukera jarri du Udak. Zein laguntza aurreikusi dituzue kultur sektorearentzat?

Gazteria Sailarekin elkarlanean sustatu dugu egitasmo hau, gazteak zinema joateko aukera gehiago izan dezaten. Bestela, gu kulturagileekin harremanetan gaude eta ahal dugun heinean beraien beharrak betetzen eta laguntzak ematen saiatzen gara. Udalaren aurrekontua berrikusi egin behar dugu egoera honen aurrean, baina kultur eragile eta elkarteei esan diegu lanean jarraitzeko, une honetan dirulaguntzak etenda egon arren, iritsiko direlako. Eta diruaz aparte, bestelako laguntzak emateko ere prest egongo da Udala.

#### ◆ Kulturari dagokionez, nolako herria iruditzen zaizu Elgoibar?

Oso herri aktiboa da. Bereziki maiatzetik aurrera, baina, oro har, urte osoan zehar egoten dira gauzak. Kultur aretoak beti egoten dira beteta, dela bilerekin, erakusketekin, hitzaldiekin... Eragile asko dago herrian, eta gauza asko antolatzen dira elkarlanean gainera. Oso herri aberatsa da kultura alorrean, eta baita kirol arloan ere. Ia asteburu guztietan egoten da zerbait Elgoibarren. Poliki-poliki, eta denon artean lortuko dugu normaltasunera bueltatzea. Ez da egun batetik bestera izango, baina konturatu orduko lehengoan egongo gara.

*“Poliki-poliki eta denon artean lortuko dugu normaltasunera bueltatzea”*

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo jardun osora.  
 ☎ 632 415 374

Edozein lan egingo nuke. Erizain laguntzaile ikasketak ditut.  
 ☎ 647 336 626

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan ere bai. Titulua daukat.  
 ☎ 631 121 148

Magisteritza ikaslea umeak zaintzeko eta eskola partikularrak emateko prest. Euskalduna naiz.  
 ☎ 684 221 398

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Euskalduna naiz.  
 ☎ 626 490 986

Nagusiak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan nahiz asteburuetan. Garbiketa lanak, plantxa eta sukaldeko lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia daukat eta arduratsua naiz. ☎ 632 355 103

**BESTELAKOAK.....**

Asteartean guretzat balio handia duen egurrezko panda bat galdu genuen Leku Ederren, topatu duenari esketuko genioke udaltzangotan lagatzea.

<p>Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erreturatua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.</p>	<p>BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:</p> <p>Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erreturatua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.</p>
--	--

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas          Euzkoaldea Berrak Administrazioaren Erakunde Nazionala</p>  <p><b>ROSA Ma PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b>  <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure higiezinan hainbat artxibo ditugu, fakturak eta ordainagiriak dituztenak, eta jakin nahi nuke ea erretiratu dezakegun, edo zenbat denboran gorde behar den komunitateko dokumentazioa.</b></p> <p>Araudiak dio idazkariak bost urtez zaindu beharko dituela deialdiak, komunikazioak, ahalordeak eta bileretako gainerako dokumentu garrantzitsuak. Bost urteko epean gorde beharrekoa jabeen batzarren deialdiari eta bilerei buruzko dokumentazioa da. Hala ere, komunitatearen dokumentazioa askoz zabalagoa da: Akta Liburuak, kontabilitateko dokumentazioak eta era guztietako korrespondentziak. Dokumentazioa askotarikoa da, eta suntsitu aurretik hura zaintzeko zehaztu beharreko epea ere bai. Zalantzarik gabe, Akten Liburuak jasotzen du Komunitatearen historia osoa, hartutako erabakiei dagokienez. Beraz, dokumentu hori, zehazki, suntsitu gabe zaindu eta gorde beharko da Komunitateak iraun bitartean, komunitatearen beraren desagertzea ere arautu lezaketen akordioak bertan jaso ahal izateko. Fakturei eta gainerako kontabilitate-dokumentuei dagokienez, zerga-legeriak lau urteko epea ezartzen du. Hala ere, egoera batzuetan eduki ekonomikoko dokumentuak egon daitezke, epealdi luzeagoan gorde beharrekoak, iraungitze data desberdina dutelako.</p> <p><b>Gomendioa. Bost urteko epean batzarren deialdiei eta bileren ospakizunei buruzko dokumentazio jakin bat zaintzeko legezko bete-beharretik kanpo, gainerako dokumentazioaren zaintza-denbora desberdina da dokumentu motaren arabera. Beraz, ezin da epe bakar bat ezarri.</b></p> <p><b>ASESORIA GO/R</b>  <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b>          San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Jare**, astelehenean 9 urte bete zenituelako. Muxu erraldoia, etxeko eta lagunaren partez.



Zorionak, **Lander!** Igandean 6 urte beteko dituzu, txapeldun! Muxu pila bat familiako guztioren partez.



Zorionak, **Ani!** Patxo potolo bat gure etxeko sorgintxoari. Etxeko, eta bereziki, Alairen partez.




Zorionak, **Leire**, ekainaren 4an 2 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eguna! Etxeko, eta bereziki, Jonen partez, muxu handi bat.



**Maialen**, astelehenean zure 11. urtebetetzea delako, zorionak etxeko partetik.




Zorionak, **Mikel!** Bihar 9 urte! Ondo pasa eguna eta muxu handi bat etxeko partez.



Zorionak, **Jon!** Asteartean 10 urte! Ondo-ondo pasa eta patxo guztioren partez.



Zorionak, **Intza!** Igandean 8 urte potolo beteko dituzulako. Ondo pasa familiako partez.



Zorionak, **Mikel** eta **June**, bihar 3 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikarik ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

29 BARIXAKUA	30 ZAPATUA	31 DOMEKA	1 ASTELEHENA	2 MARTITZENA	3 EGUAZTENA	4 EGUENA	5 BARIXAKUA
Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>
Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984

**BARREN sare sozialetan**



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria





Eire Vila

## Jone Olaizola



**M**askara ala musukoa? Nola esatea nahiago? Koronabirusak euskal hiztegia hankaz gora jarri du: "pikuak" eta "beherakadak", "eskaladak" eta "deseskaladak", "faseak" eta "desfaseak", "konfinamenduak" eta "deskonfinamenduak".

Gu konturatzerako birusak dena kutsatu du. Gaitza lapur isila baita, ertz guztietara iristen dena. Euskara ere kutsatu du, eta sintomak agerikoak izan dira; hots, eztarriko mina eta sukarrak. Euskal Telebista publikoan entzun ditugu azalpenak erdara garbian eman dituzten euskal agintariak, eta EITBk ez ditu euskaratu, presazkoa omen. Gauza bera egingo al dute nazioar-

teko agintariak ingelesez hitz egiten agertzen direnean? Nekane Murga entzun dugu behin eta berriz erdaraz hitz egiten, eta auzolotsa sentitu nuen 'visitar a los aitites' esaldi txoraa bota zuenean. Amona ez al dugu bisitatu behar?

Iritsiko da udazkena, eta gustatuko litzaidake Euskaraldia izatea euskararentzat txertorik onena. Unibertsala eta dohainik.

Amaitzeko, eulia bueltaka moduan, galdera bat dabilkit aspaldian. Zer da egoera honetatik guzitiak ikasi behar duguna? Jakin beharko dugu guk geuk eragin ote dugun egoera hau, ezta? Hala bada, neurriak hartu beharko ditugu berriz ez gertatzeko. Ez dut ikasteko beste modurik ulertzen. Horrela egiten badugu, jakintsuagoak izango gara hurrengorako. Bestela, inozo hutsak.

*"Euskara ere kutsatu du, eta sintomak agerikoak izan dira"*



## Pilar Uria Basurto

2020ko martxoaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.  
Haren oroimenez hileta meza izango da, astelehenean, ekainaren 1ean,  
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



## Juan Carlos Echeverria Larrañaga

2020ko martxoaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.  
Haren oroimenezko hileta-elizkizuna eguaztenean, ekainaren 3an,  
izango da, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



I. URTEURRENA

## Antonio Romera Ramos

2019ko maiatzaren 29an hil zen, 71 urte zituela.  
**Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.**  
Etxekoak



## Jose Luis Egidazu Lejardi

2020ko maiatzaren 23an hil zen, 71 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
gure bihotz barruan  
eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak



# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK

**BICNA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.bicna.eus](http://www.bicna.eus)  
[info@bicna.eus](mailto:info@bicna.eus)



**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



Aroztegia Carpinteria  
**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
[terda@pagoagasa.com](mailto:terda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[talera@pagoagasa.com](mailto:talera@pagoagasa.com)

ELGOIBAR

FONTANERÍA  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B  
Elgoibar  
Floren Oid: 647 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

**ONGI** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkoa  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120  
[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

- Igeltsaritza
- Pintura

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranza@gmail.com](mailto:karranza@gmail.com)

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Urruzuno, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

## LEIHOAK

**LODOSO**  
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak